



3 **MERKATARITZA**
Aterpea Mantangorriren erabilera sustatzen

Atzo eguerdian aurkeztu zuten Aterpea eta Udaleko ordezkariak merkataritza sailetik landutako azken kanpaina. Kasu honetan Aterpeako denda eta tabernetan herritarrek 5 euro baino gehiagoko erosketari egiteagatik, Mantangorriko bidaiak doan eskuratuko dituzte. Kanpaina otsailaren 17an hasi eta 28ra bitartean luzatuko da eta honetan parte hartzera deitzen dituzte herritarrek.

4 **FESTA**
Semblante Andaluzia eguna ospatzeko prest

Otsailaren 28an da Andaluzia eguna eta urtero bezala hau ospatzeko, herriko Semblante Andaluz elkarteak astebururako ekintza sorta antolatuko du. Aurtengoan gainera jaiaren baitan, gaurko bazkide eta agintarien ohorezko ardoan hain zuzen, egingo dute elkarrearen zuzendaritza aldatuta. Jose Perezek lehendakaritza Juan Vicente Perez herritarri pasako dio besteak beste.



Lasarte-Oriako Udalak eta konpartsek Inauterietako egitaraua auzkeztu zuten asteartean. Martxoaren 1ean, konpartsek eta musikak hartuko dituzte Lasarte-Oriako kaleak. Igandean, berriz, Euskal Inauterien txanda izango da.

Inauterietan musikaz beteko da Lasarte-Oria. Emakumeen Zentroa, Larramendi, Tekilak, A carcajadas, Nahaste Borraste, Intzak, Zakilibeldur, Elkar, Jalgune, Ttakun eta Zabaleta Auzolan konpartsek Udalarekin elkarlanean egitarau ederra antolatu dute martxoaren 1 eta 2an herria dantzan jartzeko.

Tasio Arrizabalaga, Gazteria, Festak eta Kirola batzorde buruak konpartsekin batera, asteartean aurkeztu zuten egitaraua.

Martxoaren 1ean, musikaren eta konpartsen eguna izango da. "Gero eta indar handiagoa hartzen ari den eguna da hau. Inoiz baina konpartsa gehiagok hartuko dute parte aurtengoan, hamaikak hain zuzen".

Martxoaren 2an berriz, Lasarte-Oriako kaleetara Euskal Inauteria helduko da, Ttakun Kultur Elkartearen eskutik.

Esfortzua eta baliabideak
Zinegotziak konpartsen parte hartze eta inplikazioa eskertu nahi izan zuen. Izan ere, konpartsa gehienak irailetik lanean baitaude.

Honetaz gain, Udalak festa hau indartzeko esfortzua



Konpartsetako kideak eta udal ordezkariak aurtengo Inauterietako aurkezpenean.

berezi egin duela adierazi zuen "diru-laguntzen zenbatekoa aurtengoa 12.000 euro-takoa izango da, eta festa antolatzeko 11.000 euro inguru bideratuko dira".

Eta konpartsei ere baliabide tekniko eta material gehiago eskaini zaizkiela azpimarratu zuen, "adibidez, beharra duten konpartsek udalaren biltegi batean karrozak muntatzeko aukera izango dute".

Kaleak girotu

Era berean, Gazteria, Festak eta Kirola batzorde buruak herritarrek mozorrotzera, kalera atera eta festan parte hartzera animatu nahi izan zituen.

Herriko kaleak egun hauetan zehar kolorez janztea ere du helburu Udalak, eta horretarako, "herritar guztiei haien balkoi eta leihoak koloretako oihalez eta globoz janzteko deialdia ere luzatu nahi dugu".

Inauterietako egitaraua

Martxoak 01, larunbata
12:00etan, Konpartsen aurkezpena, Okendo plazan.
12:00etan, txaranga herriko kaleak girotzen.
13:00etan, Sagardotegi Ibil-taria, Okendo plazan.
13:00etan, Poteoa tabernetan, Aterpea elkartearen eskutik.
14:30ean, Konpartsen bazkaria. Eguraldi ona egitekotan, Okendo plazan.
15:45ean, Gazte Klubaren "Bingo" Okendon.
16:30ean, Konpartsen bilkura eta txokolatada Zabaleta Auzolan elkartearen eskutik.
17:00etan, Konpartsen desfilea. Okendo plaza, Kale Nagusia, Ola kalea, Zumaburu kalea; Zumaburuko eliza paretik Kale Nagusira; Tajamar errotonda, Pablo Mutilozabal, Geltoki kalea.

19:00etan, Desfilearen amaiera, Okendo plazan.
Ondoren, Dinbi-Banda batukada herriko kaleetan zehar ibilko da.
23:00etatik aurrera, Abiba diskojaia, Okendo plazan.

Martxoak 02, igandea
12:00etan, Euskal Inauterietako konpartsak hainbat ekintza burutuko ditu Okendo plazan
12:45ean, Konpartsak erdigunean dantzatzeko du.
17:30etan, Euskal Inauterietako konpartsen arratsaldeko saioa: Okendo plaza, Kale Nagusia, Zumaburuko errotondan buelta eman eta Kale Nagusiatik Tajamar errotondaraino, Hipodromo etorbideetik jeitsi eta Okendo Plazan bukatu.
19:00etan, dantza eta hartza erretzea, Okendo plazan.

Bideo Lagunak
TIEN 21
Etxekotesna elektrikoetan adituak

iMUGITU!
PREZIOAK JAISTEN DITUGU
ERAKUSKETA ALDAKETAGATIK
DENA LIKIDATZEN DUGU



Neure kabuz



Jone M. Hernandez

Historiaren istoriak

Historioen beharra omen dugu gizakiok. Istorioak entzun edota asmatu, idatzi, kontatu. Elikagai moduko bat da gorputza eta gure barruko munduarentzat. Bakoitzari istorio berdina modu ezberdinean iristen zaigu sarri, behar, nahi edo egoera personalaren arabera. Berdin zaio, funtsean istorio horiek munduarekin behar dugun lotura eskaintzen digute eta.

Modu berean, herriek, komunitateek, historiaren beharra omen dute: historia bildu, jaso eta ezagutu behar dute talde gisa irudikatu ahal izateko euren ibilbidea, euren burua.

Lasarte-Oriak ez du lan erraza izan bere historia argira ekartzen. Giza komunitate bezala iragan luzea du, baina udalerrri gisa nahiko gaztea da. Urteetan ez zuen berezko gune administratiborik izan eta horrek ez zuen lagundu historia osatzeko beharrezkoak izaten diren dokumentuak gordetzen eta antolatzen. Abenturazaleen trazak dituzte Lasarte-Oriaren inguruko historia ezagutzen eta ezagutarazten aritu diren pertsonen ibilbideak. Ez ditut denak aipatuko, luzea izan daitekeelako, baina adibide gisa bi ekarriko ditut gogora.

Alde batetik, Manuel Lekuona aipatu nahiko nuke. Frankismo garaian Brigidatarren komentuan ezkatututa zegoela ekin zion Lekuonak San Pedro eta komentuko historia idazteari. Bestetik, Antxon Agirre Sorondo, Lasarte-Oriaren inguruko hainbat testuren egilea eta urteetan Lasarte-Oria aldizkariko kolaboratzailea. Egun hauetan hil dela jakin izan dudanean pentsatu izan dut historiak badituela bere istoriotxoak, historia maiuskulaz idatzi ahal izateko suertatzen direnak. Zenbat ez ote zituzten eramango eurekin batauk zein besteak!

Zorion agurrak



Richard

Zorionak osaba-izeba, Imanol, Pablo eta Maiteren partetik.



Eire

Zorionak printzesa!! Ondo pasa zure 4. urtebetzean familia guztiaren partetik. Muxu handi bat.



Etxahun

Zorionak familiako txikienari! Ongi etorri! Muxu potolo-potolo bat!



Andrea

Zorionak laztana! Txokolatzeko 13 muxu potolo etxeko erreginarantzat. Haizea, Naroa eta etxeko partetik.



Udane

Zorionak sorgina! Txokolatzeko bost muxu handi zure etxeko partetik. Ondo pasa zure egunean!



Maialen eta Nerea

Zorionak bikote! Muxu handi bana familiaren partetik.



Raul

Zorionak aitatxo maitia! Muxu goxo-goxoak zuretzat, Amaier, Elkain eta amatxoren partetik. Guapísimo!



Josune eta Markel

Zorionak bikote familiaren partetik eta muxu handi bat!



Garoa

Marisorgin honek 4 urte beteko ditu otsailaren 22an. Zorionak eta 4 muxu potolo!!!



Bea

Zorionak! Bi txokolatzeko muxu! Zure lagunaren partez. Ondo pasa. Gonbidatu behar duzu!

Azoka txikia

Eskaizta inmobiliarioak

• Motor batentzako aparkalekua alokatzen da erdigunean, elizaren ondoan. Telefonoa: 649526766

Salerosketak

• Izozkailu bertikala saltzen da 200 eurotan. 6 konpartimetu ditu eta Ecron markakoa da. 2011 lean erositakoa da eta oso egoera onean dago. Rafa 637234705.

Lan-eskaria

• Emakumea eskaintzen da etxeko lanak eta zaintza lanetarako interna edo externa moduan. Harremanetarako, 685 520 590.
• Mutil arduratsua esperientzia eta gidabaimenarekin lana bilatzen du orduka, interno edo externo. 688 302 653.
• Emakumea eskaintzen da garbiketa edota zaintza

lanak egiteko interna edo externa modura. Erreferentzia eta esperientziarekin. 680 767 241.

• Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egin, haurrak edo pertsona adinduak zaintzeko. Interna, externa edo orduka. Esperientzia du. Harremanetarako, 610 147 291.
• Nikaraguako mutila lanerako prest helduen zaintza interno edo externo moduan. Titulazioa eta esperientziaduna. 633 288 124.
• Emakumea eskaintzen da arratsalde garbiketa lanetan edo zaintza lan egiteko. Paperak eta esperientziarekin. 666 708 963.
• Emakume arduratsua lana bilatzen du, externe edo interna, pertsona adinduak, umeak edo garbiketa, lanetan. Esperientziaduna eta erreferentziarekin. 633 292 912.
• Emakumea eskaintzen da garbiketa lanak edo haurrek, zein pertsona adinduak zaintzeko. Orduka edo egun osoa. Erreferentziak ditu. 681 042 214.

• Interna, externa modura edo orduka lan egiteko prest nago. Garbiketan edo pertsona adinduen zaintza. 671 763 558.
• Mutila eskaintzen da gizon adinduak zaintzeko. 943 365 149.
• Lan bila nabil. Externa edo interna modura. Esperientzia eta gomendiozko gutuna. Harremanetarako, 656 648 168.
• Emakumea eskaintzen da pertsona adinduak zaintzeko. Interna edo externa moduan. Harremanetarako, 616 455 767.
• Emakumea eskaintzen da pertsona adinduak edo haurrak zaintzeko edo garbiketarako egiteko. Externa, orduka edo interna modura. 943 365 149.

Bestelakoak

• Ingeles ikasteko klase partikularrak ematen ditut bakarka, zein taldeka. Harremanetarako telefonoa: 693 601 222.

Heriotzak Jaiotzak

Jaiotzak

- Elene Garcia Agirretxe, otsailaren 15ean.
- Maria Villalon Gonzalez, otsailaren 11ean.
- Samuel Ortiz Del Brito, otsailaren 11ean.
- Iraide Arzallus Caballero, otsailaren 10ean.
- Alba Rocio Alfaro Herrera, otsailaren 10ean.

Heriotzak

- Luis Aramburu Otaegui, otsailaren 18an, 79 urte zituela.
- Jaime Goizuetza Perurena, otsailaren 17an, 87 urte zituela.

Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 21	Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
Larunbata, 22	Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
Igandea, 23	Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
Astelehena, 24	Gandarias-Urbe, l. de Loyola 9	943 019521
Asteartea, 25	Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
Asteazkena, 26	De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
Osteguna, 27	Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero
Aldabe, Perkaiztegi 8
Hernani, Tel.: 943 336 022

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



Argitaratzailea:

Ttikon Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93
ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Maidor Azumendi, Nerea
Ezzagire, Jon Altuna E.

txintxarri@txintxarri.info

Publizitatea eta administrazioa:
Arantza Artola

publizitatea@ttakun.com
administrazioa@ttakun.com

Laguntzaileak:

Unai Muñica, Gorka Lasa,
Ane Labaka, Maitu Armuti,
Aster Odriozola, Jone M.
Hernandez, Oihana Salazar,
Pako Aizpitarte, Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amador

MERKATARITZA

Aterpearekin Manttangorriako bidaiak doan

5 eurotik gorako erosketengatik autobus bidaiak doan



Udal ordezkariekin batera agerraldia egin zuten Aterpeako hainbat bazkidek ostegunean.

Atzo eguerdian aurkeztu zuten Aterpea eta Udaleko ordezkariak merkataritza sailetik lantzen ari diren azken ekimena. Kasu honetan Aterpeako denda eta tabernetan herritarrek 5 euro baino gehiagoko erosketak egiteagatik Manttangorriako bidaiak doan eskuratuko dituzte.

TXINTXARRI

Aterpea eta Udalaren elkarlanari esker herritarrek elkartekoak diren taberna zein dendetan 5 eurotik gorako erosketak egitean Manttangorriako bidaiak doan jasoko dituzte opari.

Kanpaina astelehenean jarri zen martxan eta datorren ostirala bitartean burutuko da. Ramon Ormazabal Aterpearen izenean oso pozik agertu zen aurkezpenaren ekimena-

rekin. Azaldu moduan, urte askotako eskaera izan zen herriko autobus zerbitzuarena "herriko dendetan erosi eta erdigunetik kanpo dauden herritarrentzat beharrezkoa ikusten genuen zerbitzua, komertzioa sustatzeko balioko zuela argi genuen".

Orain euren nahia litzateke Manttangorriko ordutegi zabalago bat izatea.

Hala ere, ekimen honekin autobusaren erabilera sustatzeko ahalegina egitea prime-

rakoa dela adierazi zuen. Ana Prieto Zerbitzutako buruak azpimarratu zuen, ekimen polita zela eta herriko merkataritza sustatzeaz gain, Manttangorriaren erabilera lasarteoriatarren artean zabaltzea lortu nahi dela.

Gorka Lizarraga Merkataritza alorreko buruak adierazi du ekimenak herriko garapen sozioekonomikoan duela eragin zuzena eta herritarrek honetan parte hartzea gonbidatu zituen.

Aurrerantzean herriko merkataritza eta tabernetarekin elkarlanean jarraitzeko asmoa azaldu zuen halako gehiago sortzeko. "Tratu on bat kanpainarekin indartu nahi den elkarlanaren urrats bat gehiago da".

SuBerriren kontzertu landua bazkideei

SuBerri Akordeoi Orkestrak San Pedro elizan eman zuten kontzertua larunbat arratsaldeko mezaren ostean. Bazkideek urtean zehar emandako babesarengatik esker ona adierazi nahi izan zieten kontzertu eder batekin.

Kontzertua tango batekin hasi zuten. Lesli Searle autorearen "Evening shadows" jo zuten lehenik. Jarraian Wolfgang Amadeus Mozarten serenata bat interpretatu zuten Elias Goikourriaren zuzendaritzapean. Vivaldi, Ellington, Guridi, Tizol eta Derbenkoren piezak ere jo zituzten, J.A. Mercero herritarrek edota Goikourriak berak akordeoientzat bereziki moldatuak batzuk.



San Pedro elizan eskaini zuten kontzertua.

Berez estilo guztietako piezak jotzen dituzte: jazz, zarzuela, euskal musika... Larunbatean baina, musika klasikoaren moldaketak nabarmendu ziren beste guztien gainetik.

Denera dozenaka ikusle batu ziren San Pedro parrokiaren eta 2012an sortu zen SuBerri akordeoi orkestrak kalitate handiko kontzertua eman zuten herritarren aurrean.

INAUTERIAK

Euskal Inauterietarako azken entsegua

Euskal Inauterietako konpartsak Inauteri igandean dantza egiteko entseguak egin ditu otsailean zehar. Hauek irekiak dira eta parte hartu nahi duten herritar guztiak joan daitezke. Antolatzaileek gogoratu dute datorren asteartean, 25ean izango dela azkenekoa. Zumaburu-Sasoeta ikastetxeko Sasoetako gimnasioan 20:00etatik 21:30era izango da.

UDALA

Zerga ordaintzeko epea

2013ko 3. lauhilabeteko ura eta estolderia tasa ordaintzeko epea martxoaren 17ra bitartean izango dela adierazi du udalak.

Zergak helbideratu gabe dituzten zergadunen ordainketa gutunak otsailaren lehenengo hamabostaldian bidali dira. Jaso ez duenak, edota beste aleren baten beharra duenak, Udaletxeko hirugarren solairuko Zergabilketa bulegora jo dezake, ala 943 376 187 telefono zenbakira deitu, argibideren bat behar izanez gero. Ordainketa Banku eta Aurrezki kutxetan egin daiteke, baita www.lasarte-oria.org orrian ere, tramiteak on line-nere ordainketa on line atalean.

Helbideratutako errezioben kasuan, ordaindu beharreko kuota borondatezko epearen azken egunean kargatuko da zergadun bakoitzak zehazturiko kontu korrontean, hau da, martxoaren 17an. Azken egun honetatik aurrera, ordaindu gabeko erreziboak dagokion errekaruarekin, premiamentuzko prozeduraren bitartez exijituko direla jakinarazten da.

IKASTAROA

Makrobiotika gertutik

Martxorako makrobiotika ikastaroa antolatu du Ttakunek. Iaz izandako arrakasta ikusita, aurtengoan ere honetan trebatzeko aukera izango da Nerea Gereñok gidatuta.

Bi talde egingo dira eta horrela astelehenean 18:00etatik 20:00etara edo ostiralean 18:00etatik 20:00etara egin ahal izango da. HHI-EPA-ko sukaldean izango da eta honetan barazkien sukaldatzea, algen prestaketa eta sobratutako jakiak berrerabiltzen ikasiko dute parte hartzaileek besteak beste. Gaurtik izena eman daiteke Ttakuneko bulegoan eta datorren ostirala arte izango da aukera. Ikastaroarengatik 22 euro ordainduko dituzte Ttakuneko bazkideek eta 25 euro ez direnek.

Etxebizitza zerbitzua desagertzeaz kexu

Herriko PSE-EEK EAJ-ko Estixu Alkortak Babes publikoko etxebizitzaren erregimena arautzeko ordenantza indargabetzearen ostean egingadako adierazpeni erantzun die.

Jesus Zaballos, Lasarte-Oriako Alberdi sozialistako bozeramaileak, herritarrei ezer jakin arazi aurretik Udala gobernua etxebizitza zerbitzua bertan behera uzteko erabakia hartu izana gaitzetsi du. Zaballosen hitzetan "herritarrek Udalera joaten dira etxebizitzari buruz jakiteko eta bulegoa itxita aurkitzen dute azalpenik gabe".

Sozialistek diote, Bildu, EAJ eta LOHP gobernua ez duela herritarren beharrak asetzen dituen etxebizitza politikarik. "Babes publikoko etxebizitzaren ordenantza indargabetu eta 600 herritar babes gabe geratu dira herriko erregistroan zeudelako izena emanak eta ez Etxebiden". Sozialisten aburuz, "Etxebizitza zerbi-

tzua lasarteoriatarren interesak bermatu ditu. Udala zozketetan Etxebidek eskatzen duen errolatze epea baino altuagoa zen. Honek betiko lasarteoriatarren onura ekartzen zuelarik".

Zaballosek gainera, Estixu Alkortak esandako 80.000 euroko aurreztea gezurtatu du. Kosturik handiena langileen soldata zela eta hauek beste sail batzuetan lanean daudela azpimarratzen du.

Era berean, haurreskola eta jangelaren kudeaketa eskumen aldatzeko bitartez 300.000 euro aurrezten dira, EAJ-ren merituak ez dela dio. Zaballos alkate zenean eman baitziren lehen pausoak.

Azkenik, EAJ-ko bozeramaileari Ogasuneko eta Kontu berezietako buru izan den bi urte eta erdi hauetan Udalaren jabetzan dauden pisuak alokairuan ez ateratzea bere kudeaketa eraginkorren erakusle ote den galdetzen zaio.

Andaluzia eguna ospatzeko hainbat ekintza

Dantza, kantea, musika... nagusi izango dira Semblante Andaluz elkarteak antolatutako jaian

Lasarte-Oriako andaluziarrek asteburu honetan Andaluzia Erkidegoko eguna ospatuko dute. Nahiz eta eguna otsailaren 28an izan, Semblante Andaluz elkarteak hainbat ekintza antolatuko dira gaurtik igandera egun berezi hori ospatzeko. Elkarteko kideek herritarrak gonbitatzen dituzte hauetaz gozatzera. Honetaz gain, zuzendaritza-batzorde aldaketa ere egingo da egunotan.

Otsailaren 28an, Andaluzia Erkidegoko eguna ospatzen da. 1980. urtean Autonomi Elkarteko erreferendum bidez onartu zen eta geroztik ospatzen dute andaluziarrek egun hori. Lasarte-Orian Semblante Andaluz elkarteak asteburu honetan ospatuko du andaluziarrentzat hain berezi den eguna.

Jesus Perez Acosta jardunean den lehendakariak azaldu digunez, "gure jatorria eta erroak gogoratzen ditugu festa honetan. Gainera, gure seme-alabei gure kultura eta ohiturak erakusteko aukera bat da, baita Lasarte-Orian andaluziar komunitatea dagoela jakin arazteko ere".

Egitaraua

Ospakizunak gaur arratsaldean hasiko dira, Semblante Andaluz elkarteak.

Arratsaldeko 20:00etan ohorezko ardo eskainiko die Semblante Andaluz elkarteak kide eta lagunei.

Honetaz gain, zuzendaritza-batzordearen botere eskualdatzea egingo da.

Hasiera ekitaldian zehar "Semblante Rociero" koruen

emanaldiaz ere gozatu ahalko dute elkartera hurbiltzen direnek.

Bihar, 17:00etatik aurrera, elkarte taldeek Gitanillos del Alva, Duende Flamenco, Azabache eta Zambrak dantza emanaldia eskainiko dute.

Ostean, Merche Montesek dantzan jarriko ditu elkartera hurbiltzen diren bazkide eta lagunak.

19:30ean, berriz, Paco Carrion flamenko-kantaria entzuteko aukera egongo da. Honek hainbat sari lortu ditu bere jardunean, esate baterako, 2006an Santanderreko cante jaialdian lehengoa izan zen. Carrionek David Escudero gitarra jolearen laguntza izango du.

Igandean, 11:30ean hasiko dira ekitaldiak. Arantzakuko Amaren elizan meza rocieroa izango da lehenik. Honetan "Semblante Rociero" koruak abestuko du.

Ostean, 14:00ak aldera, udal eta erakunde desberdinei agurra egin eta Andaluziako ereserkia abestuko da. Elkarteko bazkide eta lagunak bazkari oparoa izango dute eta 19:00etan, "Amigos del Sur" taldearen emanaldiaz gozatu ahalko



Semblante Andaluz elkarte taldeek Andaluzia eguneko ospakizunetan oso presente egongo dira.

dute. Dantzaldia ere izango da.

Taldeak eta flamenkoa

Egitarauan elkarte taldeek garrantzia handia dute, "hila-beteetan gogor egiten dute lan eta egun honetan lan hori erakusteko aukera dute, batez ere txikienek. Beste data batzuetan ere erakustaldiak dituzte, baina egun hau berezia eta kutuna dugu".

Honetaz gain, Semblante Andaluz elkarteak hainbeste dantza eta musika talde izatea zorte bat dela aipatu du Perez Acostak eta gainera "Amigos del sur" edo Merche Montes dagoeneko elkarte kide direla adierazi du.

Honetaz gain, jarduneko lehendakariak azpimarratzen duen moduan, Paco Carrion flamenko-kantariak emanaldia

eskainiko du larunbatean. "Flamenkoa eta bere erroak ere hurbildu nahi genituen elkartera. Duela urte batzuk ez dugula horrelako ekitalditik antolatzen. Flamenkoa zaila da ulertzen, baina guk esaten dugun bezala, ulertzean erraizetan sartzen den gauza da".

Azkenik, herritarrak gonbitatu nahiko lituzke elkartera hurbildu eta Andaluziako eguna ospatzera.

Zuzendaritza aldaketa

Bestalde, aipatu legez, zuzendaritza aldaketa emango da Semblante Andaluz elkarteak. "Urtarrietik elkarlanean bagoaude ere, jai giroan egin nahi genuen aldaketa" aipatu digu jarduneko lehendakariak.

Zuzendaritzak bere legegian ezarritako helburuak bete dituela aipatu du Perez Acos-

tak, "gazte, emakume, zein pertsona helduekin lanean egon gara urtean zehar eta hainbat ekintza egin ditugu haiei zuzenduak. Garrantzitsua iruditzen zaigu lan hau".

Zuzendaritza berria honako hau da: Juan Vicente Perez lehendakaria; Emerenciano San Nicasio lehendakari ordea, Luis Fernando Baile idazkaria, Juan Antonio Valdivia idazkari ordea, diruzaina Fernandos Cruz, Jose Garcia diruzain ordea, Juan Luis Sanchez Erosketetako arduraduna, Nicanor Iglesias, Antonio Valdivia, Jose Luis Osua eta Benito Tena arandegi-zainak izango dira.

Kultura saileko arduradun berria Antonio Beltran da eta kulturako batzorde kideak Francisco Montes eta Antonia Centeno izango dira.

Euskal literaturan murgiltzeko aukera, irakurle txokoan

Asteartean Irakurle-txokoaren saio berria izan zen Manuel Lekuona kultur-etxeko liburutegian.

Lehenik taldeka, Irati Jimenez idazlearen "Nora ez dakizun hori" liburua aztertu zuten parte hartzaileek Uxue Alberdi taldeko dinamizatzailearen laguntzaz.

Ostean, idazlearekin solasarian aritzeko aukera izan zuten.

Irati Jimenezek kideen galderak erantzun eta liburuaren nondik norakoak azaldu zituen luze eta sakonki, hala nola, idazketa prozesua, errealitate fikzioaren nahasketak, Martin eta Nora pertsonaiak nola osatu zituen edo datu batzuk autobiografikoak direla ere aipatu zuen, bidaetatik hartutako leku, sentipen



Irakurle-txokoan parte hartzaileek Irati Jimenez idazlearen azalpenak adi-adi jarraitu zituzten.

eta hitzak erabili zituela, "libururan agertzen den kokalekuetako bat Lisboako elizatean oinarritua dago eta Martinek esandako hainbat

pasarte ere bidai horretan bertan sortu ziren".

Hurrengo saioak

Bestalde, antolatzaileek

irakurle-txokoaren kokaleku aldaketa egin dela jakin arazi nahi dute. Txokoak Villa Mirentxun eta urtarrian EPA-HHI-n egin bazituen bere

lehen bilkurak, hilabete honetatik aurrera Manuel Lekuona izango dute leku literatura solasaldiek. Ohikoa den bezala saioak 18:30ean hasiko dira.

Hurrengo saioetako liburuak ere jakitera eman nahi izan dituzte, martxoaren 18an, Virginia Wolf-en "Gela bat norberarena" aztertuko da; apirilaren 15ean, Eider Rodriguezen "Katu jendea" liburua landuko dute eta honetan idazle egongo dela ere aurreratuko dute. Maiatzaren 20an, aldiz, Uxue Alberdi dinamizatzailearen "Euli-giro" eleberria izango da aztergai.

Era berean, herritarrak animatu nahi dituzte euskaraz irakurri, euskal literaturan murgildu eta txoko honetan parte hartzera.

Erabakitzeke eskubidearen alde

201 lagunek eman zuten izena ekainaren 8ko giza-katean parte-hartzeko, 500 behar dira

Larunbatean Gure Esku Dago ekimena zabalteko jaialdia izan zen Okendo plazan egun osoz. Jaialdi honen baitan denetarikoko ekintzak izan ziren. Egun honetan ere zabaldu ziren zerrendak ekainaren 8ko giza katean parte hartzeko. Guztira 500 lagun behar dira Lasarte-Oriari dagokion kilometroa osatzeko eta lehenengo egunean 201 izen emate egon ziren. Orain ostiralero Okendon jarriko den karpan izango da aukera.

Jon ALTUNA

Larunbatean giro ezin-hobea izan zen Okendon Gure Esku Dago ekimenak antolatutako jaialdian. Erabakitzeke eskubidearen alde, hainbat eta hainbat ekintza egin zituzten herritarrek Gure Esku Dago plataformak antolatuta.

Txistulari, trikitilari, panderojole eta Pasaiaitik gurera etorri ziren Igitia joaldun taldea kalez kale ibili zen jendea Okendora erakarri asmoz. Txalaparta eta adar soinuak

ere entzuteko parada izan zen.

Porrotxen esketx, flashmob eta marrubizko muxurik ere ez zen falta izan. Endika Gartziaeren erronkak herriarrentzat atentzioa piztu zuen, Buruntzara 53:13an egin zuen joan etoria.

Bestalde, Xumela abesbatza kantuan, Urtzi Telleria harrijasotzen, Kukukaren gazte eta helduen talde bana dantza-tzen... Finean asko eta kolore askotarikoak izan ziren ekainaren 8an Durango eta Iruñea arteko giza-kateari

euren atxikimendua eman ziotenak.

Photocall-ak arrakasta izan zuen, argazki guztiak TXINTXARRI.INFO-n dituzue. Goizeko ekitaldi jendetsuena Sorgin dantza izan zen. "Sinetsi ezazue!", esan zuten Lasarte-Oriako Gure Esku Dago taldeko Ricardo Ortega eta Oihana Beltran kideek ohol-tzatik. Katea osatzeko Uhartearak aldera ahalik eta lasarteoriatar gehien eramateaz "haratago" doan erronka dela azpimarratu zuten: "herrian jaio, herrian oinarritu eta etorkizuna herrian izango duen bidea da gurea, kolore anitzekoa, errezelo politikorik gabekoa. Denon artean errealitate berri bat marraztera goaz. Gure esku dago".

Arratsaldean haur zein helduentzako kirol-probak antolatu ziren. Ostean Ane Labaka, Zigor



Endika Gartzia Buruntzara igo eta jaitsi zen korrika 53:13 denboran.

Iriondo eta Patxi Etxeberriak bertso saioa eskaini zuten Itzarturen erromeriari paso eman aurretik. 20:00ak pasatxoan amaitu zen jaialdia. Antolatzaileek festa amaituta: "Herrian

erabakitzeke eskubidearen aldeko mugimendua badela erakutsi dugu, lehen egunean 201 lagunek eman dute izena giza-katearako, ia gutxienez behar ditugun erdiek".



Asko izan ziren antolatutako ekintzak, tartean Gure Esku Dago egitasmoaren aurkezpena egin zen, Sorgin dantza herrikoia eta bertso saioa herriko bertsolarien eskutik.

Langile bat zaurituta Ola Kanean gertatutako ezbeharrean

Langile bat zauritu zen atzo Ola kanean kolektorean garbiketa lanetan ari zela. 12:30ak aldera gertatu zen ezbeharra. Orduan leherketa bat izan zen lurrazpitik doan kolektorean eta bertan zegoen langilea zauritu zen.

Ola kanean ikusmira handia sortu zen. Auzotarrek aipatu zutenenez, eztanda bat entzun eta laguntzera hurbildu ziren lehen pertsonak

ondoan dagoen Aldaz H.K.-ko langileak izan omen ziren.

Suhiltzaileak, Ertzaintza, udaltzaingoak eta bi ambulanziaz hurbildu ziren Ola kalera. Langilearen egoera aztertu eta ambulanziaz batean sartu zuten berehala. Udaltzainek aipatu zigutenaren arabera, langileak erredurak zituen gorputzean. Hau dela eta Gurutzetako ospitalera eraman zuten.

Kalea itxita

Suhiltzaileak eta Ertzaintza gertakizunaren zergatia aztertzen geratu ziren inguruan.

Leherketaren ondorioz gertatutako metano isurketa arriskutsua izan zitekeela iritzita, suhiltzaileak lanean geratu ziren eta bitartean, kalea itxita egon zen herritarrentzat 4 eta 12 zenbakien artean.



Langilea istripua gertatutako lekuan artatu zuten larrialdi zerbitzuek.

MAITE

ESTETIKAKO ARETOA

Prezio berriak fotodepilazioan
ETORRI eta GALDETU

Krisi garaian,
guk ere esfortzua egin nahi izan dugu,
gure prezioetan!

Foto depilazioa argi pulsatuarekin

- Era ezberdinetako depilazioak
- Aurpegiko tratamenduak
- Gorputzeko tratamenduak
- Makillajeak
- Beste hainbat zerbitzu



Uistin Kalea z/g • Tel.: 943 370845 • Lasarte-Oria

IGERIKETA.

Igerilariak paregabe

Domina eta marka uzta Neguko txapelketetan

Indartsu dabilta Buruntzaldea IKT-ko igerilariak. Lehengo astean, Euskal Herriko txapelketan izan ziren lehian eta otsailaren 8 eta 9an, Gipuzkoako txapelketan. Bietan marka eta domina ugari eskuratu zituzten.

TXINTXARRI

Buruntzaldea IKT-ko igerilariak aurreko asteburuetan lehian bizian izan dira Euskal Herriko eta Gipuzkoako Neguko txapelketetan.

Euskal Herriko txapelketan 2 urre, 6 zilar, 2 brontze eta Espainiako txapelketarako marka gutxieneko bat egin zituzten absolutu, promesa eta junior mailako gazteek. "Absolutu mailako gutxienekoak izateagatik" bi infantil ere lehiatu zirela aipatu digu Borja Apeztegia entrenatzaileak, Nahia Jie Villamediana eta Ainara Garcia.

Iñigo Ibarburuk 100 m. tximeleta eta 200 m. libre probetan absolutu mailako txapeldun orde eta junior mailako garaile izan zen. "Ikusteko moduko" 200 m. libre proba egin zuen, aipatu du entrenatzaileak.

Honetaz gain, junior mailako 50 m. eta 100 m. libre

probetan zilarrezko dominak eskuratu zituen eta lehen proban, Espainiako txapelketarako txartela eskuratu zuen.

Mikel Esnal 50 m. libre probako txapeldun orde izan zen, 100 m. libre proban brontzea eskuratu zuen eta 50 m. tximeleta proban marka pertsonala egin zuen.

1500 m. proban Jone Vazquez hirugarren izan zen. Bere marka hobetu eta 800 m.-tako paseko marka ere hautsi zuen.

Itsaso Tolosa 100 m. bizkar proban txapeldunorde izan zen absolutu mailan eta 200 m. bizkar proban promesa mailako bigarren izan zen. 50 m. tximeleta proban, berriz, marka pertsonala egin zuen.

Naiara Lizaso 50 m. eta 100 m. libre eta 50 m. tximeleta probetan markak hobetu zituen.

Ainara Garcia 200 m. eta 100 m. bular probako markak hobetu zituen. "Sekulako 100

m. bular proba egin zuen" eta infantil mailako Espainiako marka gutxienekotik 19 ehunetokara geratu zen.

Nahia Jie Villamedianak 100 m. eta 200 m. bizkar probako marka pertsonalak hobetu zituen.

Gipuzkoako txapelketa

Otsailaren 8 eta 9an, berriz, Azeptian burutu zen Gipuzkoako Neguko txapelketan izan ziren eta infantilek domina ugari lortu zituzten; junior, promesa eta absolutu mailako igerilariak, berriz, ez zuten trofeoirik izan. Egindako hiru proba onenen puntuazioa batuta sailkapen bateratua egiten delako.

Promesa eta absolutu mailan Mikel Esnal ederki aritu zen. Azkarrena izan zen 50 m. librean, bigarren 100 m. librean, bigarren 50 m. tximeleta eta proba guztietan markak hobetu zituen. Honi esker, laugarren izan zen sailkapen nagusian.

Haitz Mitxelena hirugarren izan zen 100 m. tximeleta proban eta lehenengo 200 m. tximeleta.



Euskal Herriko txapelketan parte hartu zuten igerilarietako batzuk. BURUNTZALDEA IKT

Itsaso Tolosa bigarren izan zen 50 m. bizkar proban eta hirugarren 200 m. bizkar proban eta 200 m. estiloetan marka hobetzea lortu zuen.

Juniorretan, Jone Vazquez bigarren izan zen proban. Jonek 400 m. libre probako marka hobetzea ere lortu zuen, Euskal Herriko Txapelketarako gutxienekotik 2 segundora.

Naiara Lizaso bigarren izan zen 100 m. libre proban, baita 50 m. librean ere. 400 m. libreko marka hobetu zuen.

Iñigo Ibarburu azkarrena izan zen 100 m. eta 50 m. tximeleta probetan, baita 400 m. estiloetan ere. Baina 50 m. bizkar probako marka izan zen hobetu zuena.

Garazi Alkortak, aldis, 50 m. libre probako marka pertsonala hobetu zuen.

Infantilen dominak

Maila honetan hainbat domina

eta titulu lortu zituzten gazte-txoek.

Aipatzekoak dira bereziki Ainara Garcia 100 m. bular proban lortutako urrea, 200 bular m. probako zilarra eta 100 m. estiloetan lortutako brontzea.

Mikel Sotok ere lortu zituen dominak. Urrea 200 m. bular proban eta brontzea 100 m. bular proban. Gainera, Mikelek 50 m. libre, 100 m. bular eta 200 m. libreko markak hobetu zituen.

Nahia Jie Villamedianak ere dominak lortu zituen, 3 brontze, 100 m., 200 m. bizkar eta 200 m. tximeleta probetan.

Infantil mailako neskek 4x100 m. estiloak erreleban brontzezko domina lortu zuten eta 4x200 m. libre eta 4x100 m. libre erreleban laugarren izan ziren. Gainera, hiru erreleban marka berriak ezarri zituzten.

KIROL AGENDA.

FUTBOLA

Larunbata 22
Michelin, 10:30ean
 Ostadar-Oiartzun
Jubenilen Ohorezko maila
Beraun, Errenteria, 11:00etan
 Beti Ona-Ostadar I. kadetea, kopa
Michelin, 12:15ean
 Ostadar-Mariño
I. infanila, txapeldunen fasea
Unbe, Eibar, 13:30ean
 Eibar-Ostadar
Euskal Liga, Kadeteen Ohorezko maila
Michelin, 13:45ean
 Ostadar-SANSE
Infantil txikia, partaidetza, txapeldunen fasea
Michelin, 15:30ean
 Ostadar-Aurrera
Erregional Ohorezko maila
Martutene, Donostia, 15:30ean
 Amara Berri-Ostadar
I. Jubenila, ligara
Elbarrena, Zizurkil, 16:30ean
 Danena-Texas Lasartearra
I. Erregionala, kopa
Ubitarte, Andoain, 17:15ean
 Euskalduna-Texas Lasartearra
I. Jubenila, kopa

Igandea 23

Michelin, 09:45ean
 Ostadar B-Astigarragako Mundarro
I. kadetea, kopa

Berio, Donostia, 10:30ean
 Ekintza-Ostadar B
I. infanila, kopa

ARETO-FUTBOLA

Ostirala 21
HERRIKO TXAPELKETA
 19:45ean, Urdaneta-Balardi
 20:45ean, Izarra-Arkupe

Ibarra kirolegia, Aretxabaleta, 19:45ean
 Aretxabaleta-ISU Leihoak
Gipuzkoako Liga

Larunbata 22
HERRIKO TXAPELKETA
 09:15ean, El Punto-Viña del Mar
 10:15ean, Indaux-Trumoi
 11:15ean, Buenetxea-Ilargi
 12:15ean, Izkiña-Aritzta

Kirolegia, 16:00etan
 Aldaz H.K-Inter Eder Kafetegia
Nazional III. maila

SASKIBALOA

Larunbata 22
Kirolegia, 18:00etan
 Ostadar SKT-TAKE Aralar kirolak
Nesken kadete maila, errendimendua

Igandea 23
Benta Berri kirolegia, Donostia, 12:00etan
 Luberri Askatuak-Ostadar SKT
Nesken junior maila, partaidetza

PILOTA

Larunbata 22
Sahatsas, Getaria, 16:00etan
 Zumaia-Intza
Eskez binaka, II. kadetea. Udaberri txapelketa.

Igandea 23
Beloki, Zumarraga, 10:30ean
 Beloki-Intza
Eskez binaka, I. seniorra. Udaberri txapelketa.

ATLETISMOA

Larunbata 22
Anoetako belodromoa, 10:30ean
 Landaberri eta Sasoeta-Zumaburu ikastetxe albein eta infatil mailako gaztetxoek pistako eskolarteko lehiaketako jardunaldia dute.

Zaragoza, egun osoa
 LOKEko Maria Eugi jubenil eta Asier Olmos kadeteak Gipuzkoako Selektzioarekin Erkidego arteko txapelketan izango dira lehian.
Zorroza, Bilbao, 10:00eta eta 16:00etan
 LOKEko atletiek Euskadiko

Jaurtiketa Luzean txapelketan parte hartuko dute.

Igandea 23
Lezo, 10:00etan
 Herriko hainbat atletek Lezo-Jaizkibel mendi lasterketan parte hartuko dute.
Hernani, 11:00etan
 Herriko hainbat atleta VIII. Sagar Lasterra herri lasterketan izango dira korrika.
Ormaiztegi, 11:00etan
 Herriko hainbat atleta Sahara-kross Salem Hach Embarek Oroimenezkoa proban lehiatuko dira.

IGERIKETA

Larunbata 22
Kirolegia, 15:30ean
 Buruntzaldea IKT-ko alebin eta benjamin mailako igerilariak Kirok Zehaztasun Ligako 3. jardunaldia dute.

JUDO

Igandea 23
Etxebarría, Bizkaia, 11:00etan
 LOKEko Esteban Martinez, Mario Garrido eta Josu Olmos judoket junior mailako Euskadiko txapelketa dute.

TXIRRINDULARITZA

Larunbata 22
Atsobakar parkea, 11:00etan
 Buruntzazpi txirrindularitza eskolako infantil eta alebinek saioa dute.

ERRUGBIA

Ostirala 21
Asti, Zarautz, 20:00etan
 Beltzak Ostadar Gure Etxea-Hernani
16 urte azpikoak

Larunbata 22
Asti, Zarautz, 16:00etan
 Beltzak Ostadar Gure Etxea-Atletico San Sebastian *Euskal Liga, kadeteak*
Kirol gunea, 17:30ean
 Hernani-Eibar/Irun
Euskal Liga, neskek

Igandea 23
Orio, 09:00etan
 Beltzak Ostadar eskolako alebinek Topaketa dute.

BOLA-JOKOA

Igandea 23
Mutiloa, 10:00etan eta 16:30ean
 Ostadar SKT-ko bola joko taldeak Bikotekako txapelketako saioa du.

— Agenda —

Ostirala 21, 20:00etan, Manuel Lekuona kultur-etxean



Laboaren munduan
barrena

Tanttaka teatro taldeak Mikel Laboaren bizitzan oinarritutako "Zazpi aldiz elur" lana eskainiko du. Bernardo Atxagak 2009ko urrian, Laboa zendu ostean, Erlea aldizkarian idatzitako testuan du oinarri eta musika, poesia, antzezpena, bideoa... nahasten dituen emanaldia da. Sarrerak internet bidez, 5, 40 euro; leihatilan, 6,6 euro.

ra emateko ohorezko ardoa eskainiko die Semblante Andaluz elkarteak kide eta lagunei.

Larunbata 22, 17:00etatik aurrera
Semblante Andaluz elkarteak dantza taldeek emanaldia eskainiko dute. Semblante Rociero, Merche Montes eta Paco Carrion flamenko-kantariak ere girotuko dute arratsaldean.

Igandea 23, 14:00etatik aurrera
Udal eta erakunde desberdinei agurra egin, Andaluciako ereserkia abestu eta bazkaria izango da. "Amigos del Sur" taldearen emanaldia eta ostean, dantzaldiaz gozatuko dute.

ARANTZAZUKO AMA ELIZA

Igandea 23, 11:30ean

Meza rocieroa izango da "Semblante Rociero" taldeak girotuta.

Zero Zabor jaialdia

OKENDO PLAZA

Larunbata 22, 17:00etan

"Erraustegiari agur. Nik +ago birziklatu nahi dut" jaialdia antolatuta du Lasarte-Oria Zero Zabor taldeak. Sorgin dantza, musika, txokolatada, kontzertuak... denetarik izango da.

Ikastaroa

ELEBELTZ TOPAGUNEA

Otsaileko ostiraletan arratsaldean

Gitarrako ikastaroa Julen Basterraren eskutik.

Erakusketa

JALGI KAFE-ANTZOKIA

Otsailean zehar

"El Estudio del pintor" akademiako ikasleen lanak ikusgai.

Lasarte-Oria

Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Igandea 23, 17:00etan

Haurren zinea atalean, "Vaya Pavos" filma izango da. Sarrera, leihatilan 3,70 euro; internet bidez, 3,18 euro. Gaztelaniaz

Igandea 23, 19:30ean

Helduentzako zinea, atalean "Sobran las palabras" komedia aukera izango da. Sarrera, leihatilan, 5,90 euro; internet bidez, 5,30 euro. Gaztelaniaz.



Musika

ELEBELTZ TOPAGUNEA

Ostirala 21, 22:30ean

"Addenda" (Bartzelona), "Metralleta" eta "Pinotxet" taldeen kontzertua.

ZULO ARETOA

Ostirala 21, 23:55ean

Royak Jaleo-ren eskutik bass musika. Larunbata 22, 21:00etatik aurrera "Acidfesteu" jaialdian dj-ak eta bideo emanaldiak ere izango dira.

ATSOBAKAR ERRESIDENTZIA

Igandea 23, 11:00etan

Euskadiko Orkestrako kideek osatutako

Syrinx kamara taldeak kontzertua eskainiko du.

BAI Topaketa

VILLA MIRENTXUN

Larunbata 22, 10:30ean

Maribel Vaquerok Urnietako bizikidetzaren esperientzia azalduko du, I. BAI topaketen barruan.

Andalucia eguna

SEMBLANTE ANDALUZ ELKARTEAN

Ostirala 21, 20:00etan

Andalucia eguneko ospakizunei hasie-

— Herritarren txokoa —

Maria Auxiliadoraren ohorezko meza

Maria Auxiliadoraren ohorezko meza Zumaburuko Arantzazuko Amaren elizan Maria Auxiliadoraren meza ospatuko da otsailaren 24an, astelehena, arratsaldeko 17:00etan.

Odol-ateratzeak

Hileroko azken astelehenero bezala, odol ateratzeak egingo dituzte Osasun Zentroan otsailaren 24ean, arratsaldeko 17:30etik 20:30era. Anima zaitzte, odola ordezkaezina da eta odol falta dago!

Biyak Bat elkartearen bidaia

Biyak Bat elkarteak Granada, Kordoba eta Sevillara bidaia antolatuta du. Maiatzaren 26a eta ekainaren 4a bitartean izango da txangoa.

Elkarteko kideek jakitera eman dutenez, Lasarte-Oriatik Zaragozara autobusez egingo da bidaia eta Zaragozatik Sevillara, berriz, AVE-an.

Izena ematea ireki da. Informazio gehiago eskuratu nahi duten herritarrek elkarteko bulegora hurbiltzea besterik ez dute, astelehenetik ostiralerara, 10:30tik 12:30ra.

Megaba elkarteak kide berrien bila

Lasarte-Oriako Megaba elkarteak jende gehiago behar du bere jarduna aurrera eramateko. Horregatik, herritarrek animatzen dituzte honetan parte hartzera.

Horretarako www.megaba.es weban formulario bat bete edota 649 513102 telefonora deitu behar da. Urtean 10 euroko kuota ordaintzen dute.

Uztaro Kooperatiba

Uztaro Kooperatiba Lasarte-Orian martxan da. Kooperatibaren xedea janariaren kontsumo arduratsu bat izatearena da, bertakoa eta ekologikoa.

Lasarte-Oriako eremua elikatzen duen baratza, Beizaman kokatua dago. Astelehenero, Danok Kide elkarteko lokalean banatzen dira barazki eta frutak, garaian garaikoak eta ekologikoak.

Kooperatiba honen proiektua gустuko dutenentzat atek zabalki dituztela jakitera eman dute Uztarokoek. Informazio gehiago eskuratzeko uztarolasarteoria@hotmail.com helbidean.

— Hemeroteka —

Duela 1098ale

Jose Mari Arrizubieta, Oriako apaizari omenaldia egin zioten 1996ko otsailaren 24an. Izan ere, 53 urte apaiz-lanetan egon ostean erretiroa hartu zuen. TXINTXARRI aldizkaria harekin bildu eta martxoko lehen zenbakian argitaratu zuen elkarrizketa. Honetan hainbat dira Brunet lantegiko kapellauak azalduko istorioak.

Oriara iritsi baino lehen Araban bi urte egin zituen bere anaia Estebanekin batera. 1942 urtean, biak etorri ziren Lasarte-Oriara. Jose Mari Oriara eta Esteban San Pedro parrokira.

Ikasketak Mutriku-Sataurrairenen hasi zituen arren, urte bete egin eta Gazteizera joan zela aipatu zuen. Bertan ikasten ari zela gerra hasi eta urtero leku desberdin batean ikasi behar izan zuen, Zaldibia, Bergara, Logroño eta azken urtean, Gasteizen egin zuen.

1942ko Lasarte eta Oriara ere gogora ekarri zituen, "Oriara baino handiagoa zen, Brunet lantegiaren inguruan sortua. Eliza ere Brunet familiak sortu zuen 1940an [...] Lasarte, berriz, orain baino kaxkarragoa zen".

Anekdotak gisa, Oriako lehen bataiatua, Victoriano Vicuñaaren anai zaharrena izan zela ere aipatzen du edo Oriar sua zen batean ixildu gabe kanpaiak jotzen aritu behar zuela ziotela, baita anonimo bat bidali ziotela sermoia moztu behar zuela esanaz ere.

Oriako kapera Zumaburuko elizaren esku geratuko zela eta kaperak konponketa-premia zuela ere adierazten zuen.



Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko: Geltoki kalea, 4 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Lasarte-Oria Zero Zabor

"Zero zaborrerako bidean asko dugu egiteko"

Lasarte-Oria Zero Zabor taldeak erraustegiaren eraikuntza bertan behera gelditu dela ospatuko du bihar 17:00etan hasiko den jaialdiarekin. Honetara herritar guztiak gonbidatzen ditu eta bereziki, Sorgin dantzan parte hartzeko deia egiten dute. Erronka Zero Zaborrera iristea dela diote eta horretarako martxan jarri dute "Nik gehiago birziklatu nahi dut" kanpaina. Honekin hondakinak murrizteko edonork egin dezakeen ahaleginaz kontzientzia pizten saiatuko dira herritar, elkarte eta eragileekin elkartuz zein ekintzak antolatuz.

Maidar AZURMENDI

Erraustegia eraikiko ez dela ospatu behar dela diote Lasarte-Oria Zero Zaborreko kideek. Urte askotako borrokaren ondoren, herritarren lorpena izan dela diote eta horregatik herritarrak jaialdi honetan parte hartzea deitzen dituzte. Euren lana ez dela amaitu argi dute Mikel Olaiz, Ainhoa Ortega, Iñigo Gonzalez eta Garazi Fernandínok izan ere, zero zaborrera iristeko asko dago egiteke.

Bilketa sistemen gainetik, birziklatze tasari erreparatu beharko litzaiokeela azpimarratzen dute. "Denen aldetik jarrita, adostasunera heltzea posible dela uste dugulako".

Zer antolatu duzue bihar?

Festa bat antolatu dugu 17:00etatik aurrera Okendo plazan. Ospatu nahi dugu Zubietako erraustegia eraikitzeke lanak bertan behera utzi direla. Bestalde, birziklatzearen aldeko kanpaina abiatu dugula ezagutzera eman nahi dugu. Ekintza ezberdinak bilduko dituen programa izango da herrian birziklapena sustatzeko.

Uste dugu erraustegia ez eraikitzea pauso garrantzitsua dela baina hemen ez da gure lana bukatzen. Guk sinesten dugun bidean, beharrezkoa da norbanakoak ere pausok ematea.

Lorpen handia da errauste plantarena baina kanpaina honekin herriko sektoreekin bildu nahi dugu, gure proposamenak egin eta denon

artearen ikusi etorkizunean gehiago birziklatzeko zer egin.

Zer egongo da jaialdian?

Txalapartarekin eta trikitalariekin hasiko gara. Ondoren, Sorgin dantza herrikoia izango da.

Lasarte-Orian erraustegiaren aurka egin zen manifestazio jendetsuenean, gogoratu behar da, duela zazpi urte 8.000 lagun atera zirela kalea erraustegiaren aurka, tartean Ana Urchuegia garaiko alkatea, honen bukaera Sorgin dantza dantzatu zen eta horregatik bihar ere plazan izango da.

Urteetako lanaren ondorio izan da erraustegia gelditzea eta hori gogora ekarri nahi dugu. Erraustegiaren suntsiketa sinbolikoa ere performance batekin irudikatuko dugu herritarren laguntzarekin.

Bestela, txokolatada egongo da guztiarentzat eta Makulu Ken taldearen kontzertuarekin bukatuko dugu jaia.

Jendea animatzen dugu parte hartzera eta laguntzailak ere ongi etorriak izango dira.

Erakundeekin biltzeko asmoa duzue aipatutako kanpainaren harira?

Gure irudipena da askotan erakundeen esku uzten direla ardurak eta zentzu batean bai, hondakinaren kudeaketan beraie dagokie baina guk, norbanakoek, gure aldetik zer-bait egin dezakegu.

Udala, tabernari, elkarte gastronomikoei esaterako gure proposamenak egitea



Garazi, Ainhoa, Mikel eta Iñigo Lasarte-Oria Zero Zabor taldeko kideek herritarrak jaialdian parte hartzera gonbidatzen dituzte.

joango gara. Birziklatzea da ideia, hondakin gutxiago sortzea izan behar da abiapuntua denentzat. Gauza asko egin ditzakegu hondakin kopurua murrizteko eta agian konposta ere jende gehiagok egiteko aukera du.

Lasarte-Orian asko dago egiteko, konturatu behar gara hondakinak murriztu eta berrerabilpena pauso garrantzitsuak direla zero zaborrerako bidean.

5. edukiontzia jartzeko komisioa dago osatuta.

Sistemaren gainetik biltzen den hondakin kopuruak du garrantzia guretzat horregatik bildu nahi izan dugu alderdiekin gure proposamenak egiteko. Sistema eraginkorrena nahi genuke herrian.

5. edukiontzia ezartzeko komisioa osatu eta dakigunez adituen ponentziak ari dira jasotzen.

Gure aldetik, komisio honen jarrera salatu nahi genuke izan ere, ez da parte hartzailea izan bere eraketan eta guk bai eskaerak egin ditugu bai bertan egoteko, baita presidentarekin elkartu eta gure ekarpenak egiteko baina ez dugu erantzunik jaso. Gure ustez bada garaia Lasarte-

Orian hondakinaren arazoari heltzeko eta irtenbideak lantzeko.

Beste herri askorekin alderatuz, birziklapen maila oso baxua dugu. 5. edukiontziarekin %80ra iritsiko bagina pozik egongo gineteke baina zaila ikusten dugu. 2016rako %60 lortu beharko litzateke, eta hori guretzat lortu beharrek minimoa da, gehiago eskatu behar dugu.

Argitaratu da Zubietan hondakin organikoak tratatzeko planta egin zitekeela nola ikusten duzue?

Geroz eta herri gehiagotan jasotzen da hondakin organikoa eta hau kudeatzeko beharrezkoa da azpiegitura. Guk ere hedabideetan ezin dugu eta ez dugu gaizki ikusten.

Taldea denbora gutxi egon da martxan. Beste taldeen lanaren lekukoa hartu zenuela esan daiteke?

Eutsi diogu lehendik herrian bide honetan lanean egon direnei eta Zero Zaborren integratu dira, talde bakarra osatu dugu.

Herritarrak, gehiengo handi bat behintzat, errauskailuaren aurka egon da, eta

berriz diogu, lorpena ez da erakunde edo Zero Zabor taldeena, herritar guztiena da.

Borrika luzea izan da eta behin lortuta nolabait ospatu beharra ikusten zen. Zero Zaborrera iritsiko bagina, beste festa bat antolatu beharko genuke.

Taldea asteazkenero 20:00etan biltzen da eta kide berriak ongi etorriak izango dira.

Erraustegiaren eraikuntza beharrezkoa dela uste dute neri zer esango zeniekete?

Alderdi politikoen jarrera asko aldatu da azken urteetan. Adibidez Lasarte-Oriako alkate ohia zegoela manifestaldi erraldoi hartan. Erraustegia bai baina Zubietan ez zutela nahi adierazi zuten orduan eta orain ez asko, Zaballosek berdina esan zuten. EAJk ere antzeko jarrera izan du.

Hala ere, momentu honetan horren gainetik egon behar da eta proposamenak landu.

Egun Gipuzkoan hondakin bilketa sistema desberdinak daude martxan eta denen aldetik esfortzu minimo bat egiten bada, uste dugu adostasun bat lortu daitekeela.



GURUTZETA SAGARDOTEGIA

20€ MENUA ASTELEHEN, ASTEARTE ETA OSTEGUNETAN

ZATOZ
TXOTXEGITERA!

EGUNERO IREKITA
ASTELEHENETIK LARUNBATERA
ARTE,
EGUERDI ETA GAUETAN.
IGANDEA ITXITA.

ASTEAZKENETAN "OTXOTEA"

ENKARGUZ ESKATU DAITEZKEENAK:
BAKAILUA SALTSAN
SAHIESKIA

Oialume bidea 63 • Tel.: 943 552242 • ASTIGARRAGA (Gipuzkoa)
gurutzeta@gurutzeta.com • www.gurutzeta.com